
 <p>Ikasbidea Ikastola IPI Durana</p>	<p>EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO</p> <p>HEZKUNTZA, ETA IKERKETA</p> <p>DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION</p>	<p>Ikasbidea Ikastola IPI HEZKUNTZA PROIEKTUA</p> <p>OOGak onartua: 2017/06/29</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------



IKASBIDEA IKASTOLA IPI

IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

0. AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA

- 1.1 Ikastetxearen aipamen historikoa eta deskribapen fisikoa.
- 1.2 Ikastetxearen kokapena eta testuingurua.
- 1.3 Ikastetxearen kokapen soziolinguistikoa.
- 1.4 Beste ezaugarri batzuk.
- 1.5 Ikastetxearen dokumentu esanguratsuak.
- 1.6 Irudi korporatiboa eta kudeaketa tresna nagusiak.
- 1.7 Finantziazioa.
- 1.8 Eskola zerbitzu osagarriak.

2. IKASTETXEAREN ZEREGINAK, HELBURUAK ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

- 2.1 Ikastetxearen zeregina.
- 2.2 Ikastetxearen helburuak.
- 2.3 Helburuak, ildo estrategikoak eta proiektuak, programak eta planak.
- 2.4 Etorkizunari begira.

3. IKASTETXEAREN ILDO PEDAGOGIKOA ETA ESKAINTZA.

- 3.1 Hezkuntza eskaintza.
- 3.2 Ikastetxearen ildo pedagogikoa.
- 3.3 Eskolaz kanpoko jardueren programa zabala.
- 3.4 Ikastetxeko proiektuak.

4. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

- 4.1 Eskola komunitatearen partaidetza ikastetxearen kudeaketan.
- 4.2 Ikastetxeko kudeaketa eta antolakuntza prozesu nagusiak.

5. IKASTETXEAREN KONPROMISOAK

1. AURKEZPENA

1.1 Ikastetxearen aipamen historikoa eta deskribapen fisikoa.

Ikasbidea Ikastola 1973an sortu zen, eta Arabako Foru Aldundiaren esku egon zen, harik eta 1985ean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari transferitu zitzaion arte, Arabako beste ikastola batzuekin batera. Gure ikastola euskal ikastetxea da, titulartasun publikokoa, integrala eta ez-konfesionala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena.

1.2 Ikastetxearen kokapena eta testuingurua.

Ikasbidea Ikastola egoitza nagusia Duranan dago, Arrazua-Ubarrundiako udalerrian, Gasteiztik 7 kilometrora.



Ezkerreko irudian, Duranako egoitza nagusia. Eskuinaldean, Izarrako 2 urteko eraikina.

Duranan, nekazaritza eta abeltzaintza izan ziren nagusi. Urte batzuk dela, hiriburutik etorritakoek biztanle kopurua nabarmen igo dute.

Ikasbidea Ikastola IPI D ereduko ikastetxe publiko eta integrala da. Nahiz eta Gasteiztik 7 kilometrora dagoen Durana herrixkan kokatuta egon (Arrazua Ubarrundian), ikasleen % 75 Gasteiztik dator; beraz, herriarekin daukagun lotura bakarra kokapena da: ikasleen egoera soziolinguistikoak ez dauka zerikusirik udalerrriaren hizkuntza-egoerarekin.

Ikastetxe integrala izanik, 2-18 urte bitarteko irakaskuntza eskaintzen da. Aipatzekoa da, 2 urteko hiru gelak, ikastetxearen baliabideekin funtzionatzen badute ere (giza baliabideak eta ekonomikoak), Gasteizko Izarra haur eskolan daudela kokatuta. Horrekin lotuta aipatuko dugu ikastetxearen barnean ere etapa bakoitzak eraikin propioa duela.

Egun, 1186 ikasle dugu, horietatik 266 Haur Hezkuntzan (3 linea), 457 Lehen Hezkuntzan (3 linea), 357 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (3 eta 4 linea bitartean eta Aniztasun Kurrikularreko talde bat) eta 106 DBHOn (2/3 linea). Gaur egungo atzerritar kopuruaren portzentajea %1,4koa da. Ikasleen % 25 (gutxi gorabehera) herri desberdinetatik dator eta %75 Gasteiztik.

Gasteizko ikasleei dagokienez, hauek dira zonaldeak etapaka sailkatuta:

- HH-LMHn, zonaldeak muga Los Herrán kalean du, eta Salburua, Zaramaga, Judimendi, Aranbizkarra, Arana, Santa Luzia, Betoño, Santo Tomás, Ibaialde, Arkaiate, Larrein eta Elorriaga auzoak hartzen ditu.
- DBH-DBHOn, berriz, muga Avenida Gasteizen da, eta Alde Zaharra, Coronación, El Pilar, San Cristobal, Batán, Adurza eta Aretxabaleta auzoek osatzen dute.

Herrietatik datozen ikasleei dagokienez, Arrazua-Ubarrundia udalerriko ikasleak ere zonaldeko ikasleak dira, baita Legutio, Otxandio eta Zigoitiakoak ere.

ARRAZUA-UBARRUNDIA	VITORIA-GASTEIZ		DBH - DBHO
Garraiodunak	Garraiodunak		
<ul style="list-style-type: none"> • ARROIABE • ARZUBIAGA • BETOLAZA • DURANA • LANDA • LUKO • MENDIBIL • NANCLARES DE GAMBOA • ULLIBARRI-GAMBOA • ZIRIANO • ZURBANO 	<ul style="list-style-type: none"> • AMARITA • ERRETANA • GAMARRA MAYOR • JUNGITU • MIÑANO MAYOR • ULLIBARRI-ARRAZUA 	<ul style="list-style-type: none"> • BETOÑO • ESKALMENDI • GAMARRA MENOR • LUBIANO • MIÑANO MENOR 	<ul style="list-style-type: none"> • LEGUTIO UDALERRIA • ZIGOITIA UDALERRIA • OTXANDIO UDALERRIA
Garraiorik gabe	Garraiorik gabe		
<ul style="list-style-type: none"> • DURANA 	<ul style="list-style-type: none"> • ABERASTURI • ARKAIA • ASKARTZA • ESTIBALITZ • ILARRAZA • OREITIA • VILLAFRANCA 	<ul style="list-style-type: none"> • ANDOLLU • ARGANDOÑA • CERIO • ELORRIAGA-ARKAUTE • MATAUKO • OTAZU • URIZAR (BARRUNDIA) 	

Ikasbidea Ikastola IPIri dagokion zonaldea, eta garraioaren eskubidea dutenak.

Ikastetxearen kokapena dela-eta, ikasleek garraioa erabili behar dute eskolara etortzeko, baita irakasleek ere.



Jantoki zerbitzuari dagokionez, HHko eta LMHko ikasleak eskolan bazkaltzen dute. Tarte horretan, nahi dutenek eskolaz kanpoko hainbat ekintza burutzen dituzte. Bigarren Hezkuntzan, berriz, 2015-2016 ikasturtetik aurrera jardunaldi trinkoa daukagu.

Irakasleen zerrendari dagokionez, 2016-2017 ikasturteko Lanpostu Zerrendan ditugun plaza osoak HH-LMHn 49,5 eta DBH-DBHOn 55 diren arren, guztira, lan jardunearan eskatu diren murrizketa batzuegatik 118 irakasle gara gaur egun. 18 Haur hezkuntzan, 36 Lehen Hezkuntzan eta 64 DBHn eta DBHOn. Irakasle taldearen % 49,6 finkoa da.

Ikasle eta irakasleez gain, 55 administrazio eta zerbitzuetako langile daude: jangelako 32 begirale, 8 sukaldari, 2 administrari, 4 atezain, bi administratibo eta 9 garbitzaile.

1.3 Ikastetxearen kokapen soziolinguistikoa

2014-2018 ikasturteetarako normalkuntza proiektuan bildu genituen datuen arabera, ikasleen %26,62ren jatorrizko hizkuntza euskara da. 2015eko Ebaluazio Diagnostikoaren (ED) arabera, berriz, portzentaje hori %12,7ra jaisten da (LMHko 4. mailako eta DBHko 4. Ikasleak kontuan hartuta).

IRAKASLEAK: Beste kideekin alderatuta, irakasleen artean oso nabaria da euskararen erabilera. Erabateko erabilera dugu, % 100ekoa.

IKASLEAK: Ikasleen jatorrizko hizkuntza euskara da %26,62an. Familia euskaldunen kopurua jaitsi egin da azken urteotan; zazpi puntu inguru jaitsi da tradizioz ikastetxe honetan izan ditugun ehunekoei erreparatzen baldin badiegu.

FAMILIAK: Familiako bi kideak euskal hiztun diren kopurua % 19,6ko da eta kide bat euskaradun dutenak % 41,27. Beraz, biak gehituta euskararen presentzia familietan % 60,87ra heltzen da.

ADMINISTRATIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK: Egun, lau atezain eta bi idazkari ditugu gurenean, eta guztiek daukate ikasleekin kontaktua. Harreman horiek euskaraz izaten dira.

1.4 Beste ezaugarri batzuk.

2015eko Ebaluazio diagnostikoaren arabera, Ikastetxearen Indize Sozioekonomiko Kulturala altua da.

Familien parte-hartzea eta atxikimendua oso ona dela esan daiteke ikasturte hasierako harreran edo bestelako deialdi orokorrak egiten direnean. Asko jaisten da Bigarren Hezkuntzan eta are gehiago Batxilergoan, errendimendu edo portaera arazoak ez badaude tartean.

IGEek hainbat ekintza burutzen ditu ikasturtean zehar, ikastetxeko eskola komunitatean inplikaturik dagoen estamentu aktiboa da, eta esparru ezberdinetan hobekuntzak egiteko dirulaguntzak ematen ditu: pedagogian, zerbitzuetan, formazioan, etab.

Familiak ikastetxeko OOGan ordezkaturik daude, eta eskola komunitatean eragina duten erabaki estrategiko zein aldi-aldikoetan parte hartzen dute.

Ikastetxeak Duranako udaletxearekin daukan harremana: Sologana Gizarte Etxea erabiltzen dugu Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako eskolak emateko. Aldiro-aldiro, HHko eta LMHko ikasleek ere erabiltzen dituzte bertako instalazioak.

Arrazua Ubarrundia **Gorbeialdeko Koadrilako** udala izanda, euskararen sustapenerako egiten diren koadrila horretako ekintzetan parte hartzeko aukera du ikastolak.

Ikastetxearen eskaintza:

Aurreko atalean aipatu dugun bezalaxe, gure hezkuntza eskaintzak 2-18 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu. Batxilergoan Giza eta Gizarte Zientzietako modalitatea eta Zientzietakoa eskaintzen ditugu.

Bai DBHn bai Batxilergoan, irakasgai komunez gain, aukeragaiak, tailerrak eta aniztasunari erantzuteko programazioak norbanakoari egokitzen edota errefortzuak eskaintzen ditugu, beti ere, ikasleen errealitatera egokituz eta kalitatezko eskaintza anitza osatu nahian.

Ikastetxearen izaera integrala dela-eta, etapa guztien kudeaketa era txukunean burutzeak betidanik suposatzen dio eskola komunitateari, eta bereziki hezkuntzako-ikastetxeko langile teknikariei, ahalegin handia. Berezitasun horrek badakar gure ikastetxea berariaz tratatzeko beharra. Horregatik, ezinbestekoa jotzen dugu administrazioaren aldetik babesa eta laguntza, esparru ezberdinetan beharrezkoak ditugun gisa baliabideak modu orekatuan bermatuz (zuzendaritza, proiektuak eta formazioa, administrazioa eta garraio zerbitzuak), ikastetxeen arteko ezberdintasunak ekitatez tratatuz. Horrek guztiak gure ikastetxearen eta euskal eskola publikoaren kalitatearen hobekuntza ekarriko luke.

Ikastetxearen partaidetza sare ezberdinetan

Sarean (Euskal Eskola Publikoetako Zuzendarien Elkarte) elkartearen kide gara 2013-2014 ikasturtetik.

BIHE Ikastetxe Publikoen Zuzendarien elkartearenak 2015-2016tik.

Aurki sortu den Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako zuzendarien HEIZE elkartearen kide gara.

Bi elkarteek EAEko Zuzendariak biltzen dituztenez, ikastetxe ugarien eta anitzen esperientziak partekatzeo aukera ematen digu, baina onurarik nabarmena da administrazioarekin elkarlanean aritzeko baliogarria izatea, ikastetxeen arteko harremanak sendotzea eta sare publikoak lehiakortasunean irabaztea.

2015-2016 ikasturtetik Kalitatea Hezkuntzan Sareko partaide gara. Sarea EAEko 56 ikastetxe publikok osatzen dute, eta elkarlanean aritzeko aukera ematen digu etengabe hobetze aldera.

Azken urteotan Berritzeguneko HH-LMHko eta BHko Zuzendaritza Mintegietan parte hartu dugu.

Ebaluazioen ondorioak

Azken ebaluazio diagnostikoen emaitzak, gure ISEK-aren arabera espero zitezkeenak izan dira.

Hezkuntza Ikuskaritzatik ikasleei buruz eginiko ebaluazio emaitzak aztertuta, 2014 urteko datuek diote “igaro ez diren” LMHko ikasleen portzentajea Arabako eta Erkidegoko batez bestekoaren parekoa dela. DBHko 1. eta 3. mailatan igaro ez diren ikasleen portzentajea pixka bat handiagoa da erkidegoko emaitzekin alderatuta, eta Arabakoen antzekoa. DBHko 2. eta 4 mailan askoz txikiagoa da Arabako eta erkidegoko emaitzekin alderatuta.

Irakasgai guztiak gaintitu dituzten ikasleen portzentajea Arabako eta Erkidegoko datuekin alderatzen baditugu, LMHko hiru zikloetako amaieran handiagoa da gure ikastetxean, are nabarmenago 2. eta 3. zikloen amaieran. DBHn, berriz, Arabako emaitzengatik nabarmen gaintetik gaude DBHko 1. eta 2. mailatan, 3. eta 4. mailan Arabakoen gaintetik eta erkidegokoaren parean.

Batxilergoa egiten duten ikasleen emaitzek eta Hautaprobetan lortutakoek ez dute alde esanguratsurik eta aurkezten diren %100ak gaintitzen du, gehiengoak lehenengo deialdian. Aurkezpen maila handia dugu, saiatzen gara ikasleek hautaprobak egin ditzaten, baita Lanbide Heziketa hautatu dutenek ere. Honek % 98tik %100 arteko aurkezpen mailan jartzen gaitu.

Garrantzia ematen diogu HHko, LMHko eta DBHko ikasleen ibilbide akademiko eta pertsonalari. Horren ondorioz gurean DBH amaitzen duten ikasleen %99k ikasketak jarraitzen ditu. Bidean, batzuei, ibilbide ezberdinak aukeratzen laguntzen diegu eta ez dute eskolatzea baztertzen.

1.5 Ikastetxearen dokumentu esanguratsuak.

Hauek dira ikastetxearen dokumentu nagusiak:


- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP).
- Hizkuntza plana.

- Plan estrategikoa.
- Tutoretza plana.
- Bizikidetzeta plana eta hezkidetzeta plana.
- Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA).
- Normalkuntza plana.

1.6 Irudi korporatiboa eta kudeaketa tresna nagusiak.

Ikasbidea Ikastola IPlak dokumentu guztietan erabiltzen dituen logoa dauka. Horrez gain, ikastetxearen irudia eta informazioa gizarteratzeko web orria (www.ikasbidea.net) eta sare sozialak (Facebook-a eta Twiter-a) erabiltzen ditugu.

Ikastetxeak ere bere barneko sarea du informazioa zikloen eta departamentuen eskura jartzeko. Informazio pedagogikoaren kudeaketarako eta familiekin elkarkomunikatzeko Inika plataforma dugu tresna nagusi. Horrez gain, ikastetxeko ikasbidea.net domeinuak kudeaketarako, elkarbizitzarako eta esparru pedagogiaren hobekuntzarako ematen dizkigun aukerez baliatzen gara.



1.7 Finantziarioa

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpe dagoen ikastetxea da, eta autonomia ekonomikoa dugu.

Hezkuntza doakoa da. Hala ere, familiek diru ekarpena egiten dute, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren gastuak ordaintzeko.

1.8 Eskola zerbitzu osagarriak

Jantokia: kudeaketa zerbitzua publikoa da, hezkuntza sailaren menpekoa. Bere zereginak eta funtzioak aurrera eramateko, berariaz liberatutako ikastetxeko irakasle baten laguntza dugu.



Ikastolako jantokiak

Zaintza gela: zerbitzu horren beharra duten familientzako dago, bai HH2ko Izarrako egoitzan zein HHko eta LMHko etapako ikasleentzat Duranakoan. Zerbitzu hori IGEak kudeatzen du.

Eskola garraioa: administrazioa arduratzen da garraioaz, eta, hortaz, berak hartzen du bere gain kudeaketa, zuzendariarekin eta berori antolatzen den lan-taldearekin batera. Batxilergoan garraioa ez da doakoa, etapa ez baita derrigorrezkoa.

Eskolaz kanpoko jarduerak: Iturribero Guraso Elkarteak antolatzen ditu halako jarduerak, eta ikastolako instalazioak erabiltzen ditu. Jarduerak eguerdiko jantoki orduan, asteburuetan eta oporraldietan egiten dira.

Liburutegiak: irakurzaletasuna bultzatzen dugu ekintza desberdinak antolatuz (liburuaren eguna, euskara astea...), “eskola liburutegiak” mintegitik proposatuak. LMHn hiru eguerditan liburu mailegua zerbitzua eskaintzen dugu, eta jolastorduetan ikasleen eskura egoten da liburutegia. DBHn irakurketarako txoko berri bat egin dugu. Hau guztia ikastolak eta IGEak finantzatzen du.



2. IKASTETXEAREN ZEREGINA, HELBURUAK ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

2.1 Ikastetxearen zeregina.

Ikasbidea Ikastola IPI ikastetxe publiko, euskaldun eta integrala da (2 urtetik 18ra arteko ikasleak jasotzen dituena).

Gure zeregina ikasleen heziketa integrala lortzea da, bai eremu pertsonalean zein akademikoan, euskalduntasuna sustatzen jarraituz.

- Eremu pertsonala eta soziala:
Norberaren izaera, autonomia, ikuspegi kritikoa, jarrera ekologikoa eta jasangarria garatu nahi dugu gure ikasleengan. Haien sozializazio prozesuan ere lagundu nahi dugu errespetua, tolerantzia, konpromisoa, berdintasuna eta elkarbizitza positiboa bultzatuz, gertuko eremuan zein zabalean.
- Eremu akademikoa:

Ikaskuntza prozesua zein ikasketen ibilbide egokia bermatu, gaitasunen garapena ahalbideratzen duen curriculum eskainiz, eta ikastetxean dagoen aniztasunari erantzuna eman.



2.2 Ikastetxearen helburuak.

1. helburua

Ikasleak etorkizunerako era integralean heztea eta prestatzea, beraien aniztasuna kontuan hartuta eta euskalduntasunean oinarrituta.

2. helburua

Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea, elkarlana, koordinazioa eta komunikazioa sendotu bizikidetza positiboaren ildotik abiatuz.

3. helburua

Arlo pedagogikoa, antolaketa eta kudeaketa etengabeko hobekuntza sistemaren bidez lantzea.

4. helburua

Gizartearen eskakizunei aurre egiteko langileak gaurkotu. Horretarako, beharrezkoa den formazioa bermatu eta dauzkagun erronkei erantzuna eman.

2.3 Helburuak, ildo estrategikoak eta proiektuak, programak eta planak.

1. HELBURUA	ESTRATEGIAK
<p>Ikasleak etorkizunerako era integralean heztea eta prestatzea, beraien aniztasuna kontuan hartuta eta euskalduntasunean oinarrituta</p> <p>PROIEKTU, PROGRAMA ETA PLANAK</p> <p>Curriculum Proiektua HBSP Laguntza Plana Curriculum Aniztasuna Elkarbizitza Eta Hezkidetza Plana AJA Orientazio Programa Hizkuntza Plana Hizkuntza Normalkuntza Plana E-Inika Eta Irakasle Koaderno Intraneta Web Orria Eskola 2.0 IK-KI (Ikasketa Kooperatiboa) Harrera Plana</p>	<p>1. estrategia Gizarteko erronkei erantzungo dien eskaintza akademiko koherentea, zabala eta inklusiboa eskainiko dugu. Ikasleen aniztasunari erantzun egokia ematen saiatuko gara, guztien aukera berdintasuna ziurtatuz, bakoitzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesu anitza kontuan hartuz.</p> <p>2. estrategia Tutoretza, orientazio eta aholkularitza zerbitzua indartuko dugu, ikasleen erabaki prozesuetan lagunduz eta euren gaitasunak kontuan hartuz. Aldi berean, ikasleen banakako jarraipena eta laguntza bermatuko da, familien laguntzarekin.</p> <p>3. estrategia Ikasleek behar dituzten ezagutzak eta gaitasunak garatzeko, gizatasunean eta elkarbizitza positiboan oinarrituko gara:</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Elkarbizitza, hezkidetza, berdintasuna: Gatazkak, era positiboan eta konpromisoetan oinarrituta kudeatuko dira talde dozentearen inplikazioaz.▪ Osasun arloa, heziketa afektibo-sexuala, drogamenpekotasunaren prebentzioa,..▪ Autoestima eta heziketa emozionala.▪ Heziketa eta praktikak jasangarriak eta ekologikoak sustatu.▪ Elkartasuna landu: munduko errealitate desberdinak begirunez aztertu.▪ Ikastetxearen kokapenez baliotuz, ingurugiroaren garrantzia nabarmendu. <p>4. estrategia Euskal kultura sentitzea eta bizitzea. Era berean, euskara bere ondarea eta ikastetxeko irakaskuntzaren berezko hizkuntza izanik, gure ikasleek esparru guztietan erabiltzea lortu behar dugu.</p>

<p style="text-align: center;">2. HELBURUA</p> <p>Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea, elkarlana, koordinazioa eta komunikazioa sendotu bizikidetza positiboaren ildotik abiatuz.</p>	<p style="text-align: center;">ESTRATEGIAK</p>
<p style="text-align: center;">PROIEKTU, PROGRAMA ETA PLANAK</p> <p>Ikastetxeko organoen osaketa eta antolaketa Elkarbizitza Plana AJA Zikloetako batzordea Mintegiburuen Batzordea E-Inika G-Suite Moodle Intraneta Web Orria Familien Urtekaria Inguruko ikastetxeekin koordinazioa</p>	<p>5. estrategia Ikastetxe eta familien arteko harremanak indartuko ditugu beraien seme-alaben beharrei hobeto erantzun ahal izateko. Familien inplikazioa lortzeko bilerak bermatuko dira. Komunikazioa hobetzeko, teknologia berriak erabiliko ditugu.</p> <p>6. estrategia Ikasle, familia, irakasle eta langile ez irakasleen arteko komunikazioa eta harremanak indartuko ditugu, dagokien organoen bidez eta guztion iritziak aintzakotzat hartuz.</p> <p>7. estrategia Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua gauzatzeko, irakasle eta mintegien/zikloen arteko elkarlana eta koordinazioa indartu, “Batzorde pedagogikoak/Mintegiak-Zikloak/Klaustroa/Ordezkaritza Organo Gorena” zirkuluaz baliatuz.</p> <p>8. estrategia Etapen koordinazio bertikala (HH-LMH-DBH-DBHO) eta horizontala indartu. Etapen barneko zikloen koordinazioa hobetu. Guztion funtzionamendua bateratuta izateko erabakiak hartu.</p>

3.HELBURUA

Arlo pedagogikoa, antolaketa eta kudeaketa etengabeko hobekuntza sistemaren bidez lantzea.

PROIEKTU, PROGRAMA ETA PLANAK

PLAN ESTRATEGIKOA

URTEKO PLANA

KALITATEA HEZKUNTZAN

PROIEKTUA

HOBEKUNTZA TALDEAK:

- KH taldea.
- IKT taldea.
- Elkarbizitza eta Hezkidetza batzordea.
- Pedagogia batzordea.
- IK-KI

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN

HOBEKUNTZA PLANA

KUDEAKETA EKONOMIKOA

PROGRAMA

LAN ISTRIPUEN PREBENTZIO PLANA

LAGUNTZA PLANA (LMH)

ESTRATEGIAK

9. estrategia

Arlo pedagogikoan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza indartuko dugu. Hori gauzatzeko Batzorde Pedagogikoak berrantolatuko ditugu.

10. estrategia

Ikaslearen protagonismoa eta autonomia garatuko duen eredia bultzatuko dugu elkarreragina eta talde lanaren bitartez, hau guztia kompetentzien araberako hezkuntza bermatze aldera.

Euskara ardatz hartuta, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sendotzen joango gara.

11. estrategia

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren kalitatea bilatuko dugu, ebaluazioa sistema bateratua adostuz.

12. estrategia

Ikasgelan kalitatezko zerbitzua gauzatzeko, pertsonen, instalakuntzen, IKTen eta baliabide materialen kudeaketa sistematizatua eta eraginkorra lortu behar da.

13. estrategia

Antolakuntzan eta kudeaketa ekonomikoan gardentasuna izango dugu.

4. HELBURUA	ESTRATEGIAK
Gizartearen eskakizunei aurre egiteko langileak gaurkotu. Horretarako beharrezkoa den formazioa bermatu eta dauzkagun erronkei erantzuna eman.	14. estrategia Gure ikastetxearen izaera integrala (IPI) dela-eta, administrazioaren aldetik beharrezkoa dugun errekonozimendua eta berariazko trataera bermatu behar da, hau guztia araudi ofizialean islatuz.
PROIEKTU, PROGRAMA ETA PLANAK	
Formazio Plana Pedagogia Batzordea	15. estrategia Irakasleen formazioa eraginkorra bultzatuko dugu, beharrak identifikatuz eta horiei erantzuteko baliabideak jarriz.
	16. estrategia Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan lagungarri diren metodologiak jorratuko ditugu, ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak kontuan izanik.
	17. estrategia Langileen konpromisoa hobetzeko lan giro atsegina, ilusioa eta elkarlana bultzatuko dugu.
	18. estrategia Ikastetxe barnean esperientziak elkartrukatu.

2.4 Etorkizunari begira.

Ikastetxeak hezkuntza arloan erreferente izan nahi du, kalitatezko hezkuntza eskaintza zabala eta sendoa bermatuz, eredu pedagogiko zehatzaz eta ebaluagarriaz gure eskualdeko ikasleen behar guztiei erantzuteko gai dena, betiere euskalduntasunean oinarrituta. Irakasle prestatuak eta teknologia berrien baliabide aurreratuak izanik, emaitza onagatik ezagutzen dena eta prestigioa mantentzen jarraituko duena, ikasleak bere jardunaren muina daukana.

3. IKASTETXEAREN ILDO PEDAGOGIKOA ETA ESKAINTZA

3.1 Hezkuntza eskaintza

2 urtetik 18 urtera bitarteko ikasleak dituen Ikastetxe Publiko Integrala (IPI) gara.

- 2 urteko gela Gasteizen.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Duranan.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Duranan.
 - Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP).
 - Curriculum aniztasuna.
- Batxilergoa Duranan:
 - Batxilergoko 2 modalitate:
 - Giza eta gizarte zientziak.
 - Zientzia, teknologia eta osasun zientziak.

Ikasketa guztiak D ereduan ematen ditugu.

3.2 IKASTETXEAREN ILDO PEDAGOGIKOA

Hezkuntza gaitasunetan oinarritutako ikuspegia

Ikasleek modu aktiboan parte hartu behar dute bere garapenean. Informazioa eta ezagutza jasotzeko bilatu, ikertu, esperimentatu, hausnartu egin behar dute ahal den modu autonomoenean. Ezinbestekoa da planteatzen zaizkien arazoek egunerokoekin lotura izatea, testuinguru honetan ikasiko baitute benetan.

Bi motako gaitasunak garatzen ditugu:

1. Oinarrizko zehar gaitasunak, jakintzagai guztietan lantzen direnak:
 - Ahoz, idatziz eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
 - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
 - Elkarbizitzarako konpetentzia.
 - Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
 - Izaten ikasteko konpetentzia.

2. Oinarrizko konpetentzia espezifikoak, diziplina baitako eta diziplinartekoak direnak:
 - Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia.
 - Matematikarako konpetentzia.
 - Zientziarako konpetentzia.
 - Teknologiarako konpetentzia.
 - Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
 - Arterako konpetentzia.
 - Konpetentzia motorra.

Ikasle bakoitzak bere jarraipen pertsonalizatua izaten du eta aniztasunaren trataerari erantzuna emate aldera, ikastetxean dagozkion berariazko neurriak jartzen ditugu indarrean:

- Beharra duten familiei etxeko hezitzaile laguntza giza zerbitzuen bidez ahalbidetzen dugu.
- LMHn Curriculum Nabarmeneko Egokitzapenak (CNE) beharrezkoa duten ikasleei.
- Diagnostikoa dagoelako, arreta berezia duten ikasleentzako berariazko protokoloak abian jartzen ditugu.
- Beharrezkoa duten ikasleei Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (HIBP) egiten dugu.
- Ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egiten dugu, tutoreekin koordinatuz irakasle taldeko partaideek egingo dutena.
- DBHko 1.zikloan Curriculum Nabarmeneko Egokitzapenak (CNE), arlo bateko egokitzapena eta Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP).
- DBHko 2.zikloan Curriculum Nabarmeneko Egokitzapenak (CNE) eta Curriculum Aniztasuna programa (CA). Beharrezkoa denean, ikasleak beste ikastetxeetan dauden programa osagarrira bideratzen ditugu.
- Osasun egoera berezia dela-eta, beharrezkoa denean etxez-etxeko laguntza abian jartzen dugu.
- Beharra duten ikasleak Unidad de Psiquiatría Infanto-Juvenil-era (UPI) bideratzen ditugu.
- TDA edota TDA-H eta Dislexia diagnostikatua duten ikasleei beharrezkoa duten protokoloa jartzen diegu abian.

Aniztasunaren inguruan Berritzeguneko zerbitzuekin elkarlanean aritzen gara.

Familia guztiek hiru hilabete behin seme edo alabaren ibilbide akademikoaren berri idatziz izango dute, eta urtean nahi alditan elkarriketatuko dira egokitu zaizkien tutore eta irakasleekin.

3.3 ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA ZABALA

Ikastetxean ikasgelaz kanpoko zenbait jarduera burutzen dira. Iturribero Guraso Elkarteak antolatzen ditu halako jarduerak, eta ikastolako instalazioak erabiltzen ditu. Jarduerak eguerdiko jantoki orduan, asteburuetan eta oporraldietan egiten dira. Eskola orduetatik kanpo burutzen diren jarduera horiek ikasleen hezkuntza integrala osatzen laguntzen dutenez, garrantzia handia ematen diogu, eta goizeko eta arratsaldeko eskola orduen arteko denboraren aprobetxamendua bermatzen dugu.



3.4 IKASTETXEKO PROIEKTUAK

- **Hobekuntza sistema:** ikastetxean ematen diren prozesu guztien ebaluazioa egin eta emaitzetatik abiatuta etengabeko hobekuntzarako neurriak hartu. “Kalitatea Hezkuntzan” proiektua.
- **Hizkuntza Proiektua:** ikastetxeko hizkuntzen erabilera eta irakaskuntza kudeatzeko proiektua da, ikasleen hizkuntza komunikaziorako gaitasuna hobetzeko asmoz.
- **Normalizazio Proiektua:** euskara gure kulturaren ondarea den heinean, erabilera zaindu eta indartzeaz gain, geurea dela transmititu behar dugu, horretarako beharrezkoak diren programak eta jarduerak bultzatuz.
- **Teknologia berriak:** eskola komunitatearen eskura jarri teknologia digitalak, arlo horretan gaur egungo gizartearen eskakizunetara erantzute aldera. IKT ikastetxe ereduari dagokionez, Erdi mailako Heldutasun Profila eskuratua dugu. G-suite-aren erabilera indartu, baita INIKA plataformaren erabilera ere, eta INIKako etapa guztien garapen mahaian parte hartzen jarraitu.
- **Elkarbizitza eta behatokia:** ikastetxean sor daitezken gatazka guztiak konpontzeko batzordea sortua da. Elkarrizketa tresna nagusitzat erabiliz, egunero sortzen diren liskarrak modu hezitzailean konpontzeko konpromisoarekin jarraitu.
- Hezkuntza Sailak ezartzen dituen **Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak.**
- **Autonomia:** Partekatuz ikasi eta horrelako jarduera emankorretan parte hartzen jarraitu, hobetzeko baliagarriak diren esperientziak zabaldu edo jasotzeko xedeaz.
- **Kalitate Sareko partaide:** ezagutza partekatzeko eta elkarren arteko lankidetzak indartzeko, eskola eta institutu publikoek osatzen duten sareko partaide izaten jarraitu.

4. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

4.1 ESKOLA KOMUNITAREAREN PARTAIDETZA IKASTETXEAREN KUDEAKETAN

Hona hemen ikastetxearen kudeaketan parte hartzen duten estamentuak eta aginte organoak:

- Ordezkaritza Organo Gorena (OOG) eta haren batzordeak.
- Ikastetxeko Guraso Elkarte (IGE).
- Ikasleen ordezkariek (gela bakoitzeko ordezkaria eta ordezkariordea).
- Klaustroa.
- Pedagogia batzordeak.
- Euskara batzordea.
- IKT batzordea.
- Kalitate batzordea.
- Elkarbizitza eta Hezkidetzak batzordea.
- Tutoreen bilerak mailaka.
- Administrazio batzordea.
- Jantoki batzordea.
- Irakasleak ez diren langileen batzordea.
- Zuzendaritza Taldea.

Zuzendaritza Taldearen osaketa:

1. Zuzendaria.
2. Zuzendariordea.
3. HH-LMHko Ikasketaburua.
4. BH-ko Ikasketaburua.
5. BH-ko Ikasketaburuondokoa.
6. Idazkaria.

4.2 IKASTETXEKO KUDEAKETA ETA ANTOLAKUNTZA PROZESU NAGUSIAK

Gure kudeaketa sistema hobetzea eta indartzea izango da datozen urteetako erronka nagusienetako bat. Kudeaketa sistemaren bidez, ikastetxea goitik behera antolatuta eta ordenatuta egotea nahi dugu. Urtean zehar martxan jartzen ditugun prozesuak zehaztu eta deskribatuko ditugu bakoitzari dagokion PRan, eta behin eta berriz ebaluatuko dira amaitzerakoan sor litezkeen disfuntzio eta desadostasunetatik ikasiz, beti hobetzeko asmoarekin.

Prozesu guztiak garrantzitsuak badira ere, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua da guztietan izarra, hori baita ikastetxearen asmotan bere izaera guztia justifikatzen duena. Prozesu horren protagonista nagusia ikaslea da eta berarekin lan egiten dugun profesionalok bere garapenerako bitartekariak eta baliabideak besterik ez gara. Langile eta irakasle guztion inplikazioa ezinbestekoa da ikastetxea, elkarlanaren eta koordinazio eraginkorraren bidez, gure ikasle guztiak gustura sentitu daitezen giro egokia daukan esparrua izateko.

Kudeaketa sistema behin eta berriz ebaluatuko da eta behar den guztietan egokitu. Hona hemen orain arte deskribatutako prozesuak, eta etorkizunean zehaztuko diren prozesu nagusiak:

1. Alde estrategikoa.
2. Irakas-plangintzaren prozesua.
3. Irakatsi eta ikasteko prozesua:
 - Harrera azpi-prozesua.
 - Programazio azpi-prozesua.
 - Gelako jardueren azpi-prozesua.
 - Ebaluazio azpi-prozesua.
 - Tutoretza azpi-prozesua.
 - Aniztasunari erantzuna.
 - Elkarbizitza.
 - Hizkuntza proiektua.
4. Ezadostasunak kudeatzeko prozesua.
5. Dokumentazioaren kudeaketa.

Kalitatea Kudeatzeko Sistema proiektuak era sistematikoan esku hartzeko esparru bat eskaini nahi du, ikastetxeko hezkuntza-jardueraren eremu nagusiak hobetzeko.

5. IKASTETXEAREN KONPROMISOAK

1. Ikastetxeak, familiak, ikasleak eta irakasle berriak hartzeko programa du, eta Harrera Prozesuan ezarritako material guztiak garaiz eta epean izango ditu prestatuta.
2. Irakasle berriek programazio eta ebaluazio irizpideak onartuak izango ditu eskura ikastetxera etortzen den lehenengo aldian.
3. Ikastetxearen programazio guztiak urriaren 31rako egongo dira eginak.
4. Ikasturte amaieran programazio guztiak berraztertuko dira eta memoriak idatziko dira aurreko urtean gertatutako kontuan izanda, datorren ikasturteko programazioetan dagozkion aldaketak sartzeko.
5. Programazioetan ezarritako guztia egingo da. Hori lortu ezean, zergatia memorian islatu eta arrazoituko da.
6. Ebaluazio irizpideak familien eta ikasleen eskura egongo dira, gainditu ahal izateko eskatuko zaiena argi eta garbi izan dezaten. Ebaluazio irizpide horiek urtero berraztertuko dira.
7. Irakasle guztiek ikasleen historiala eskura dute idazkaritzan eta hor erabiliko dituzten datu horiek guztiak isilpean gordeko dituzte.
8. Ikasleek, horrela behar dutenean, programazio egokituak izango dituzte, eta bertan ezarritakoaren arabera, jarraipen eta ebaluazio berezia eta egokitua izango dituzte.